

Berrizko Misiolariak

Las mercedarias de Berriz han conocido en el último siglo una verdadera revolución interna en su antiguo Monasterio de clausura papal: pasaron de ser religiosas contemplativas a misioneras por diversos Continentes del mundo. Realmente, una transformación no frecuente entre los Institutos Religiosos de la Iglesia católica. Y en este siglo XXI el proyecto misionero de Berriz sigue vigente

«Berrizko Mesedetako Misiolariak» esatean, mundu katolikoan Institutu azkar bat aipatzen da, Etxe jakin bat, Misiio-munduan dabilen adore bizkorreko emakume-elkarte bat. Izen horrekintxe dira ezagunak moja hauek, «Berrizkoak» bezala. Baina nondik datoz? Zein historia dute?

Sustrai zaharretik zuhaitz gaztea

Mesedetako fraide eta mojak sortzez XIII. mendekoak dira. Kristau eta mairuen artean orduko borroketan esklabu eroritako kristauak askatzeko Ordena izan zen fraide mesedetakoena (Bartzelona, 1218); hortaz, Mediterranioko zorigaitz bati aurre egiteko.

Ekimen hark, ordea, Euskal Herriko premiei ere erantzuten zien (gure itsasgizonak han baitzebiltzan), eta mesedetakoen askapenez bitzua oso estimatua izan zen. Euskal Erakundeek baimen bereziak eman zizkieten Ordena honi itsaslapurrek preso hartutako euskal herritarrek askatzen laguntzeko.

Mesedetakoen artean emakumezkoak ez dira izan klaratar frantziskotarrak edo moja domingotarrak bezain ugariak; baina bai gurean ongi errotuak. 1265etik aurrera, fraide mesedetakoen ondoko Serorategietan bizi ohi ziren, mojen ohiko hiru zinitzak gordez,

eta batez ere Trento ondoren (1563...) benetako Monasterio itxi bihurtu ziren emakume-elkarteok.

Hala ere, Berrizko serora-etxea ez zen sartu berehala Trentoko Kontzilioak ezarri nahi izan zuen klausura hertsian. Kasik bi mende atzeratu zen hori (1714), lehendik ere Euskal Herrian ikusita daukagun erresistentzia bera tarteko zela.

Azken bi mendeetan Espainian bakarrik dago moja mesedetakoen Monasterio itxiren bat edo beste: horietakoak dira Bilbo (1567), Ibarra-Orozko (1573) eta Gernikakoak (1625). Garai haietako Monasterio itxi gehienak, ordea, han eta hemen bestelako izaerara pasatu izan dira, eta hauetakoa da, hain zuzen, Berrizkoa, Eskoriatzakoa ere Berrizko elkartera bildu delarik (1945).

Biziera-hautapen berri honek Berrizen izan du historiarik arrakastatsuen. Hasteko, lkastetxea ireki zuten 1869an, artean bere izaera juridiko itxia aldatu gabe, eta hezkuntzako zereginek lagundu zuten gero misio-mundurainoko zubia eraikitzen.

Berriztik mundura (1926...)

Monasterio itxi izatetik misiolaritara aldatze honetan beti aipatu izan da eragile nagusi



bezala Ama Margarita López de Maturana (1884-1934). Bilbotar alaba hau Ikastetxeko ikasle izan zen lehenengo, laster moja sartu zen eta Ikastetxera itzuli irakasle gisa. 1920ko hamarkadako Elizako misio-zaletasunean oin harturik, ikasle eta mojekin batera misiolari eta misionologo euskaldun handiekin lotu zituen harremanak (besteak beste, Zameza, Bidaurreaga edo Chalbaud jesulagunekin, Zengotita karmeldarrekin, etab.).

Horri esker, espiritualitate pertsonala ez ezik Misioekiko teologia, pentsamendua eta premiak ezagutu ahal izan zituen Ama Margaritak, eta ingurutik zetozkion ideia eta asmo berriekin bereak indartu eta moja lagunak sustatzen saiatu zen astiro-astiro. Guztien gidari karismatikoa izan zen.

Ikastetxean 1920an eratu zen Mesedetako Gaztedi Misiolaria, heziketan saiatuz, gazteak erakarri eta garaiko eliz misio-mugimendu ofizial eta fededunena Ikastetxera ez ezik zeharbidez Monasterio barrura ere sartzen lagunduko zuena.

Institutu misiolari bihurtu aurretik lortu zuten Berrizko mojek Erromak Misioetarako baimena ematea, eta 1926an irten ziren lehen moja misiolariak Txinarantz, Wuhu-ko jesulagunen artean lan egiteko. Erromako *Propaganda Fide*-ren agindupean eta Berrizko mojen borondatez, Ama Margarita eta lagun-tzaile izan zituenen esku onarekin egin zen ondoko bidea.

Ama Margaritak bi bidaia handi egin zituen Misioetara: 1928-1929an Japonia eta Irla Marianetara joan zen, Etxe sortu berrietara

misiolariak eramatera, eta 1931n itzuli zen berriro Misio beretara. Une garrantzizkoa izan zen hau eskuartean zegoen Misioena eta batez ere Institutuaren etorkizuna ere segurtatzeko.

Institutu berria ofizialtasun osoarekin eratzeko Egoitza Santuaren ezinbesteko baime-na lortu berria zuten 1930ean, eta urte berean onartu zituen Erromak Konstituzioak, Ama Margarita eta bere aholkulari juridikoez prestatutakoak.

1931ko uztailan bildu zen Institutu berriaren lehenengo Kapitulu Jenerala, A. Margarita guztien buru nagusi hautatu zuena; zoritxarrez, denbora gutxirako, ordea, 1934an hil baitzen Donostian ebaketa baten ondorioz. Dena den, Institutua bideratuta utzi zuen, eta moja misiolari berriztarren gidarako hainbat idazlan ondurik.

Berrizko aldakuntza ez zen egin goitik edo kanpotik ezarrita, moja guztien artean bototara jarritako erabakien ondoren baizik, 94 mojek aho batez baiezkota emanda (1930). Hartutako Misioetan zailtasunik handienak Txina barruko gerrek eta arazo ekonomikoez sortu zituzten gero (1926-1945).

2009an Berrizen bertan bizi direnak 54 dira, baina European zehar, Asian, Ozeanian, Afrikan eta Ameriketako dabilta lanean, 14 herrialdetan eta 56 Etxe dauzka Institutuak (Euskal Herrian zazpi) eta 456 lagun ditu (horieta-ko 239 euskal herritarak, 1968tik hona).

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610273580